



Hau izango da Jai Alternatiboen irudia.



Aurten, ia bezala, ez da txosnarik izango San Pedro jaietan.

## Sorginek San Pedro jaietako herri-giroa bultzatu nahi dute

**Sorgin Jaia Okendora iritsi bezain pronto hasiko dira San Pedroetako Jai Alternatiboak. Herriko hainbat gazte aritu dira azken hilabete hauetan egitaraua osatzen, eta helburua argi dute: jai parte hartzaileak, herrikoiak eta irekiak ospatu nahi dituzte.**

Ekainaren 28an, Buruntzan bizi diren sorginak herrira jaiatsiko dira eta Jai Alternatiboak ospatzen hasiko dira. Sorginek herriko hainbat gazte izan dute laguntzaile San Pedroetako egitarau alternatibo hori osatzeko, eta azken hiru hilabete hauetan lan horretan aritu dira buru-belarri. "Gure asmoa da herriak berak antolatu dituen jaiak ospatzea. Horretarako, deialdi irekiak luzatu ditugu, guztien proposamenak jasotzeko asmoz. Azkenean osatu dugu egitarau hori eta handik aurrera herritarrek jai horietan parte-hartzea nahiko genuke". Guztiz herrikoiak izango diren festak bizi nahi dituzte gazte horiek, "herriak berak landutakoak, alegia. Gaur egun, Udalak antolatzen duena baino ez dago, eta programa ofizial hori ez da herritik atera dena. Gure ustez, ez dira batere saiatu egitaraua berritzen, eta beraiek ez badute ahalegin hori egiten, guk egin beharko dugu. Azkenean, asmo horrek batu gaitu Jai Alternatiboak egitera, eta aurrerantzean antolaketa herritar gehiago egotea espero dugu". Hori dela eta, jende guztiari gustatzeko moduko ekitaldiak prestatzen ahalegindu dira egitarau alternatibo horretan: "Ofiziala errespetatuz, izan ere, programa ofiziala gure gustukoa ez izan arren, beste batzuen gustukoa izan daiteke".

Sorginak izango dira jai horietako pertsonaia nagusienak, festari kutsu mitologikoa eman nahi diotelako: "Ekitaldi garrantzitsuenetako bat ekainaren 30ean egingo dugun Akelarrea izango da. Antzezpen baten bidez, Mari Burdin eta sorgi-

nen arteko tirabirak antzetzuko dituzte. "Urtero Lasarteko jaiak sorginen jaiak izatea nahiko genuke", eta horrek gazte horientzako esanahi hau du: herri-giroa indartzea. "Guk inori ez badiogu kalterik egiten eta jendeak jaiak onartzen baditu eta gustukoak baditu, azkenean herria gurekin egongo da".

### Txosnik gabeko festak

Aurten txosnik gabeko jaiak izango dira -aurtengoak eta iaizkoak, gazte horiek gogorazten duten bezala-. Talde batzuek eskaera egin zuten arren, azkenean ez jartzea erabaki zuten, "tokia eta egoera desegokiak direlako. Txosnak ez dira bakarrik edateko tokiak. Txosnak gune bat dira, eta aurtengo arautegiak eskaintzen duen gauza bakarra da edariak kalean saltzea, eta, gainera aparte. Arautegi berria lotsagarria da: ordutegia mugatuegia da, dezibelioen muga gehiegizkoa da. Horrelako mugak jarrita ez dakigu merezi duen ezta planteatzea ere. Beraz, baldintza horietan txosnik ez jartzea erabaki genuen. Gune horren aldeko errebindikazioak egingo dira, baina horrela ez du merezi".

Gune horren beharra herri-giroa indartuz sortu nahi dute, "herri-giro hori ez badago, txosnek ez dutelako zentzu gehiegirik. Gune horren beharra badagoela ikusi behar dugu. Beraz, aurtengorako parte-hartze hori bultzatzea da gure helburu nagusia. Aurtengoa aitzakia bat izango da aurrera egiteko".

Udalaren jarrera kritikatzeko dute, azken urtetan egitarau berrizailerik egin ez dutelako eta txosnetarako ezarri dituen arauak murriztegiak direlako. Baina beraiei -eta oro har herritarren- jarrerari buruz ere, zer esanik badute: "Bizi guztia daramagu kexatzen San Pedroek tutik ez dutelako balio, bada, aurten zer edo zer egingo dugu. Eta, agian, datorren urtean gauza gehiago antolatu ahal izango ditugu; agian, jende gehiagoren artean, diru gehiagorekin eta azpiegiturarekin".

◆ Nerea Navarro

## JAI ALTERNATIBOEN EGITARAUA

**Ekainak 28, ostirala**  
20:00.- Harrera Sorgin Jaiari.  
20:00-21:00.- Herri poteoa txarangarekin.

**Ekainak 29, larunbata**  
12:00.- Makarroi-jana prestatzea koadrilen artean.  
18:00.- Koadrilen jaitsiera txarangarekin.  
19:00.- Manifestazioa txosnen alde.  
20:00.- Herri poteoa.  
00:00.- Gaueko olinpiadak

**Ekainak 30, igandea**  
12:00.- Haurrentzako jolasak.  
Presoei omenaldia.  
20:00.- Akelarrea.  
Gauetan.- Mari Burdin erretzea.



**Goxokiak**  
**Fruitu lehorrak**  
**Olibak**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Geltoki kalea 6, behea • Tel.: 943 360863 • LASARTE-ORIA



Hartu atseden goxo bat San Pedro jaietan!

**BERRI BERRI**

JOSTUNDEGIA  
KONPONKETAK  
MOLDAKETAK

TINDATEGIA

BEREZITASUNAK:  
LARRUA  
ANTEA  
NOBUCKA

Geltoki kalea 16 • Tel.: 943 366402 • LASARTE-ORIA

**Agate**

**ESTETIKAKO ARETOA**



- Makillajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma
- Depilazioa
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiko tratamenduak
- Masajea

Ondo igaro San Pedro jaiak!

Kale Nagusia 51 • Tel.: 943 370549 • LASARTE-ORIA

**IRAOLA**

**ITURGINTZA • BEROKUNTZA • GASA**  
**PETROLIOZKO PRODUKTUAK**  
**GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Tailerra: Oria etorbidea 4, 11 (sotua)  
Goikale 21-1.a D • Tel.: 943 370395 • LASARTE-ORIA